

**Elikagai berriei buruzko araudi berriaren** xedea da baldintzak hobetzea, enpresek errazago merkatura ditzaten EBn elikagai berriak eta berritzaileak, betiere Europako kontsumitzaileentzat elikagaien segurtasun maila altua izaten bada. Horrela, elikagaien eskaintza handituko da.

Elikagai berriei eta elikadura-osagai berri buruzko [258/97 \(EE\) Erregelamenduak](#) Europar Batasunean elikagai berriak baimentzea eta erabiltzea adosten du duela ia hogeitertetik. Epe horretan, teknologiak eta zientzia-irizpenek bilakaera nabarmena izan dute, eta, beraz, EBren arauak eguneratzeko beharra zegoen, baimenen prozeduraren egungo iraupena murrizteko (batez beste, hiru urte eta erdi irauten du). Horretarako, 2015eko amaieran, [2015/2283 \(EB\) Erregelamendua](#) onartu zen.

#### ZER DA ELIKAGAI BERRI BAT?

Elikagai berri bat da 1997ko maiatza baino lehen EBn kantitate adierazgarrietan kontsumitu ez zena (data horretan jarri zen indarrean elikagai berriei buruzko lehen araudia). Garatu berria den elikagai berritzaile bat izan daiteke, ekoizpen-teknologia eta -prozedura berriekin ekoiztutako elikagai bat, edo tradizionalki EBtik kanpo jaten den elikagai bat.



#### ALDAKETA NAGUSIAK

Araudia berriak **hobetu egiten du baimen-prozeduraren eraginkortasuna**, elikagai seguruak eta berritzaileak azkar merkaturatzeko aukera ematen du, beharrezkoak ez diren merkataritza-eragozpenak ezabatzen ditu, eta aldi berean, elikagaien segurtasun maila handia bermatzen du.

Erregelamenduak **baimen-sistema zentralizatu** bat sortu du, eta horrek ziurtasun handiagoa emango die elikagai berri bat baimentzeko eskatzen duten eskatzaileei, eta baimen-prozesua azkartuko du.

**Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak** baimentzeko eskatzen diren elikagai berrien arriskuen ebaluazio zientifiko bat egingo du, eta bitartean, Batzordeak eskatzaile bakoitzaren espedienteak kudeatuko ditu eta segurutzat jotako elikagai berrien baimen-proposamenak aurkeztuko ditu.

EBn elikagai berriak erabiltzeko baimena emango da baldin eta osasun publikorako arriskurik ez badakarte; baldin eta, antzeko elikagai bat ordezkatzuz gero, ordezkatzuten duten elikagai horrek nutrizioaren ikuspuntutik abantaila gehiago ez baditu; eta kontsumitzaileen arteannahasterik eragiten ez badute. Baimenakezartzen ditu horien erabilera-baldintzak, elikagai edo elikadura-osagai izendapena, eta etiketa-betebeharrak.

EBko kideak ez diren herrialdeetan tradizionalak diren eta EBn elikagai berritzaile hartzen diren elikagai merkaturatzea errazteko, erregelamendu berriak, gainera, **EBn berriak diren elikagaiak ebaluatzeko prozedura egokiago** bat ezarri du **hori segurtasunez kontsumitu izanari** buruzko

informazioa.



Flickr\_killerturnip\_IMG\_6591\_01

Araudi berrian, **datuak babesteari buruzko xedapenak ere gehitzen dira**. Elikagai berri bat baimendu ondoren, datu zientifiko berriak eta babestutako datuak ezingo dira erabili beste eskaera batzuen esparruan bost urtez.

Baimendutako **elikagai berrien zerrenda bat sortuko eta eguneratuko du Batzordeak**; elikagai horiek Batasunean merkaturatu ahal izango dira bere horretan edo osagai gisa erabili ahal izango dira elikagaietan, xehatutako etiketa-betebeharrekin eta erabilera-baldintzekin bat etorrira.

Erregelamendu berriak, halaber, banakako baimenetatik baimen orokor batera igarotzea proposatzen du, elikagai berri bererako hainbat enpresak eskaera aurkeztea saihesteko; hartara, elikagai berri bat baimendu ondoren eta EBko elikagai berrien zerrendan sartu ondoren, elikagai hori merkaturatu egin ahal izango du elikagai-entresa ustiatzaile orok.

#### ELIKAGAI BERRIEN KATEGORIAK AREAGOTZEA

1. Molekula-egitura desberdin bat duen elikagaia; betiere, egitura hori ez bazenerabiltzen elikagai gisa edo elikagai batean Europar Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen.
2. Mikroorganismoetatik, onddoetatik

edo algetatikeratorritako elikagaia, edo horietatik isolatutako edo ekoiztutako elikagaia.

3. Mineral-jatorriko materialetikeratorritako elikagaia, edo horietatik isolatutako edo ekoiztutako elikagaia.

4. Landareetatik edo horien zatietatikeratorritako elikagaia, edo horietatik isolatutako edo ekoiztutako elikagaia; salbuetsita geratuko da Batasunaren merkatuan elikadura-erabilera seguruko historia dutenak etalandare batetik edo espezie bereko bariatate batetikeratorritakoak, edo horietatik isolatutako edo ekoiztutakoak, honela lortuak:

- o Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagaiak ekoizteko erabilitako ugalketa-praktika tradizioaletatik, edo
- o Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagaiak ekoizteko erabili ez diren ugalketa-praktika ez tradizioaletatik, baldin eta praktika horiek elikagaiaren nutrizio-balioari, metabolismoari edo substantzia kaltegarrien mailari eragiten dieten elikagaiaren posizioa edo egitura eragiten ez badute.

5. Animalietatik edo horien zatietatikeratorritako elikagaia, edo horietatik isolatutakoa edo ekoiztutako elikagaia; salbuetsi egingo dira Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagaiak ekoizteko erabilitako hautaketa-praktika tradizionalen bidez lortutako animaliak eta horien eratorriak Batasunean elikadura-erabilera seguruko historia dutenak.

6. Zelulen kultibo batetik edo ehun-kultibo batetikerorritako elikagaia, animalietatik, landareetatik, mikroorganismoetatik, onddoetatik edo algetatik eratorria, edo horietatik isolatutakoa edo ekoiztako elikagaia.
7. Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagaiak ekoizteko erabili ez den ekoizpen-prozesu berri baten ondoriozko elikagaia, haren nutrizio-balioari, metabolismoari edo substantzia kaltegarrien mailari eragiten dioten elikagai-egitura eragiten duena.
8. Nanomaterial artifizialeterorritako elikagaia.
9. 2002/46/EE Zuzentarauaren, 1925/2006 (EE) Erregelamenduaren edo 609/2013 (EB) Erregelamenduaren arabera erabilitako bitaminak, mineralak eta beste substantzia batzuk:
  - o baldin eta Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagaiak ekoizteko erabili ez den ekoizpen-prozesu bat aplikatu bazaie.
  - o baldin eta nanomaterial artifizialak badituzte edo horietatik eratorritakoak badira.
10. Batasunean 1997ko maiatzaren 15a baino lehen elikagai-osagarrietan soilik erabilitako elikagaia, baldin eta elikagai-osagarriez bestelako elikagaietan erabili nahi bada, 2002/46/CE Zuzentaruak kasu.

## Nanomaterialak zer baldintzatan erabili daitezke?

Nanomaterialak atomo- eta molekula-eskalan ekoiztako materialak dira. Erregelamendu berriak zehazten du legedia berriaren definitutako nanomaterial artifizialak elikagai berri gisa baimendu behar direla elikagai-produktuetan erabili baino lehen. Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak horien segurtasuna ebaluatuko du. Eskatzaileek egiaztatu egin beharko dute baimentzeko eskatzen duten nanomaterial artifizialei entseguak egin zaizkiela, metodo aurreratuenak erabilita.



## Sartzen al dira intsektuak erregelamendu berriaren aplikazio-eremuan?

Intsektuak mundu osoan kontsumitzen dira. EBn, intsektuak "elikagai berrien" definizioan sartzen dira, animalietatik eskuratutako elikadura-osagai gisa. Intsektuen zatiak (hankak, hegoak eta burua) ere sartzen dira definizio horretan.

Legedia berriak argitzen du "elikagai berrien" definizioan sartzen direla 1997ko maiatzaren 15a baino lehen (Erregelamenduak ezartzen diren muga-data) EBn neurri handian kontsumitu ez diren animalia osoak, intsektuak kasu.



Flickr\_star5112\_Bugs on a stick

### Klonazioari buruz

Araudi berriak ezartzen du, klonazioari buruzko legedi espezifiko bat ezarri arte, animalia klonatuetatik eratorritako elikagaiak elikagai berrien erregelamendu berriaren menpe geratzen direla, hazkuntza ez tradizionalen bidez lortutako animalien elikagai gisa, eta behar bezala etiketatu behar direla azken kontsumitzailearentzat, Batasunean indarrean dagoen legediarekin bat etorrira.

### ELIKAGAI BERRIEN ETIKETATUA

Elikagai berriak [1169/2011 \(EB\) Araudian](#) ezarritako etiketa-betebehar orokorrak beteko dituzte. Elikagai berrien etiketa-betebehar espezifiko osagarriak ere aplika daitezke, kontsumitzaileei behar bezalako informazioa emateko, zehazki: elikagai berria talde ziurgarri jakin batzuentzat ez dela gomendagarria adierazten duten etiketak.

Etiketan, elikagaiaren izena agertu behar da, eta hala badagokio, haren erabilera-baldintzak. Elikagaiaren behin-behineko propietate nutrizionalei eta osasungarriei buruzko jakinarazpenek bateragarriak izan behar dute propietate nutrizionalen eta osasungarrien jakinarazpenei buruzko [1924/2006 \(EE\) Araudi](#)arekin.

### BIBLIOGRAFIA

1. [Reglamento \(UE\) 2015/2283](#) del Parlamento Europeo y del Consejo de 25 de noviembre de 2015 relativo a los nuevos alimentos, por el que se modifica el Reglamento (UE) no 1169/2011 del Parlamento Europeo y del Consejo y se derogan el Reglamento (CE) no 258/97 del Parlamento Europeo y del Consejo y el Reglamento (CE) no 1852/2001 de la Comisión
2. [Preguntas y respuestas: nuevo Reglamento sobre nuevos alimentos](#)
3. [ACSA brief: Nuevos alimentos](#)